## ASTIGARRAGA

# Sagardogileei deialdi bat

**ASTIGARRAGA. DV**
**J. ORMAZABAL**

Sagardogileei, gure herriko alkate izan zen, Arka jaunak, honako hau azaldu nahi die: «Ai gure sagardotegi maitagarriak, euskaldunon topalekua, ¡Non zaudete!». Esaldi honekin sagardogileei dei bat beren etxeko hazienda-ondasuna ez saltzeko edozein preziotan egitera ausartzen naiz, zeren eta, sagardotegira joatea «modan da goelako» edozer gauza uzterik badago —ardoa, kafea, pattarra, izozki eta bestelako «zerbitzu bereziak» eskaintzea, non gelditzen diren sagardoaren kalitatea, jatorria, bertakotasun izana, sagardotegien izera eta ohiturak. Honela bada, agian «aktibitate kaltegarrien» espedientea bate beharko... Zergatik ez. Zalantzarik gabe, izaera babesteko eta suspertzeko ordua da. Euskara sagardotegietan erabiltzeko ihaz ederki asko egin zenuten bezelaxe.

EL DIARIO VASCO Sabado, 25 de abril de 1992